

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoa: "konstuen egitura" atalean aipatutako materialak erabiliko ditugu. Beste alde batetik, tresna eta erremintak behar izango dituzte langileek konpostontzia eraikitzeko. Gainera, gure lantegia ere izango da beste baliabide fisiko bat.

Baliabide intelektualak: zer esanik ez, ingeniari eta mekanikoak ezinbestekoak dira gure produktua aurrera eramateko. Hasieran ingeniari agroindustrial 1, ingeniari kimiko 1, ingeniari industrial 2 eta gu geuk, Ane Macias, Iker Diez, Ignaco (Natxo) Eizaguirre eta Maider Madariaga, izango gara. Horrez gain, konpostontzien bidalketak betetzeko furgoi gidari bat ere enpresan lan egingo du. Gure industria eta eskaera handitu ahala hauen kopurua igoko dugu.

Giza baliabideak: argi dago edozein enpresa aurrera eramateko giza baliabideak funtsezkoak direla. Gure enpresan hainbat sailetan banatuta egongo dira:

- Ugazabak: proiektuaren ideien sortzaileak, lau pertsona. Gure lana enpresaren funtzionamendu normala mantentzea izango da eta gure produktuak ekoizteko beharrezkoak diren ekintzak bermatuko ditugu. Esaterako, materialen erosketak egingo ditugu eta langileak kontratatuko ditugu. Horrez gain, itunpeko institutu eta eskoletara hurreratuko gara gure produktua aurkezteko eta akordioaren batera heltzekotan, lehendik negoziatu izan ostean noski, haiekin kontratuak sinatuko ditugu haien premietara egokituta. Zentro publikoetan gure produktua kokatzeko Eusko Jaurlaritzarekin negoziatuko dugu.
- Mekanikariak: haien lana hurrengo hau izango da, lehendik erositako materialetatik eta ingeniarien diseinuetatik abiatuta gure produktua osatzea.

\*Mekanikariak LHIK-n trebatu diren pertsonak izango dira. Horrela, esperientzia profesionala irabazi ez ezik, etorkizunean gure enpresan lan egiteko aukera ere lortuko lukete. (6 pertsona)



- Ingeniariak: gure "konpostontziak" ahalik eta era eraginkorrean lan egin dezaten lan egingo dute. Lau ingeniari lan egingo dute enpresan.
  - Ingeniari agroindustrial bat: baliabide naturalen kudeaketa egokia bermatuko du eta nekazari produkzioaren teknika berrien ikerketa finkatu.
  - Ingeniari kimiko bat: zabor organikoa konpost egitearen prozesua segurua eta efizientea izatea bermatuko du
  - Bi ingeniari industrial: konpostontziaren motorra eta orokorki tresna osoa era optimoan funtzionatzeaz arduratuko dira. Horrez gain, giza baliabideak modu hobereanean.
  
- Furgoi gidaria: konpostontzien bidalketaz arduratuko da.

Finantza baliabideak: bankuari kreditu bat eskatuko genioke eta baita ere gure diru propioa inbertituko genuke, 35.000€ inbertsio bat eginez.